



MUSIKA

# Terfel holandar irmoa



Zuzendariak: Pedro Halffter eta Boris Dujin. Gorka Miranda. Guy Montavon. Bakarlariak: Bryn Terfel (baxu-baritonoa), Manuela Uhl (sopranoa), Wilhelm Schwinghammer (baxua), Kristian Benedikt (tenorea), Itxaro Mentxaka (mezzoa) eta Roger Padullés (tenorea).

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Opera bat programatzea ez da tontakeria. Mila elementu, detaile, teknika, profesional, artista, koordinatu behar dira emaitza ez bakarrik ona eta doia lortzeko, baizik eta exijentea den publiko bat sorgintzeko. Eta Wagnerren obra bat denean hau guztia ehunekin biderkatu egiten da, konpositore honen operak konplexutasun handiko produkzioak dira eta.

Horrexez gatik, zalantzarik gabe esan behar dugu OLBEk benetan asmatu zuela *Der fliegende Holländer* (Holandar alderraia) produkzioa antolatzean. Izugarriko protagonista izan genuen, baina horrez gain, inguruko pertsonaiak ere maila gorenekoak suertatu ziren.

Obra ederra da, Heinrich Heineren lan batean oinarrituta. Erromantikoa eta guztiz tragikoa. Bi pertsonaia "botere-tsu" aurkezten ditu maila psikologikoan

zein interpretatiboan: holandarra, baritono batentzako paper bat, estreinaldi garaian batere ohikoa ez zen tesitura bat; eta Senta, erredentzioaren gaiaren ikur argia, beti Wagner obsesionatu zuena. Izan ere, obraren gai nagusia maitasunaren bidezko erredentzioa da.

Esan bezala, interprete onenak izan genituen. Gaur egun entzuten den holandar mediatikoena izan zen protagonista: Sir Bryn Terfel galestarra, bere baliabideekin bat zetorren ikuspegiari: barnertzerik eta barruratzetik gabe, orkestraren intentsitatearen parekoa, eta emari handiko ahots zabal eta adierazkor batean, sotiltasunetik urrun. Halere, batzuetan sorpresa hartu genuen une delikatu eta sentituak adierazi baitzituen.

Kontraste horrek –pasarte batzuen ia laztan ikaragarriaren eta beste batzuen



Bryn Terfel baxu-baritonoa.

## WAGNERREN DER FLIEGENDE HOLLÄNDER

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA  
BILBOKO OPERA KORUA  
EASO ABESBATZA

EUSKALDUNA JAUREGIA.  
URTARRILAREN 18A.

ia animalaren oldarkortasunaren arteko txandakatze horrek – eraman zuen Terfel pertsonaia bat birsortzera, zeina atsegin baitugu, bere sufrimendugatik, bere gizatasunagatik; baina, aldi berean, bere elementu deabruzko eta basatiagatik, hunkitzen gaituena.

Laburbilduz, Terfelek *Holländer* ahaztezina egin zuen. Bere ondoan, Manuela Uhl soprano alemaniarra, Sentaren paperean, ahots distiratsu eta koloretsua erakutsi zuen. Eta, horrez gain, naturaltasunez mugitu zen eszenatikian. Wilhelm Schwinghammer baxuak oso interpretazio *teknikoa* egin zuen, ñabardura gutxi azalduz, baina guztiz dotorea. Kristian Benedikt tenorea, Itxaro Mentxaka mezzoa eta Roger Padullés tenorea fin eta adierazkortasunez aritu ziren baita ere. Benetan ondo. ●